

OSAKIDETZAKO PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO INFORMAZIOA KORONABIRUS BIDEZKO INFEKZIOAREN PREBENTZIOA

Euskadin Koronabirus bidezko infekzio-kasuak izan ondoren – horietako batzuk osasun-arloko profesionalak dira –, eta infekzio-intzidentziak gora egingo duela aurreikusten denez, Osasun Sailak eta Osakidetza Zuzendaritzak honako gomendio hauek helarazi nahi dizkizute profesional-taldeei.

IZAERA OROKORREKO PREBENTZIO-ARAUAK

- **-Eskuetako higiene-neurriak ahalik eta gehien areagotzea urarekin eta xaboiarekin** bai pazientearen artean, baita eremu komunean azalarekin kontaktua izan aurretik eta ondoren ere. Esate baterako, hurrengo egoeratan: kontsultak, bilera-gelak/txostenak, sendaketa-gelak, erauzketa-gelak, edota ekipo informatiko komunak erabiltzean.
- **Profesionalek maskara kirurgikoa erabili behar dute arnas klinika duten pazienteekin kontaktuan daudenean (koronabirusaren susmorik ez dagoenean ere).**
- **Arnas klinika duten paziente guztiei maskara kirurgikoak erabiltzea gomendatuko zaie.**
- Koroabirusaren paziente susmagarriak artatzen dituzten profesionalak **dagokion segurtasun materiala erabiliko dute**, jarduera-protokoloak ezartzen duen moduan.
- **Sukarra edo arnas klinika akutua duten profesionalak ez dira beren lanpostura joango**, eta Oinarrizko Prebentzio Unitatearekin (OPU) (Lan Osasuna) harremanetan jarriko dira.
- Kontaktutzat hartu diren eta hartu beharreko neurrien berri eman zaien profesionalak Osasun Publikoa eta Oinarrizko Prebentzio Unitateen bidez kontrolatuko dira.

BIRUSA PROFESIONALES ARTEAN TRANSMITITZRA MURRIZTEA – ANTOLAKETA ARAUAK

- Koronabirus-kasuren bat identifikatzen den ESletan, eten egingo da irakaskuntza-jarduera (gradu aurreko edo bestelako praktikak).
- Unitate eta zerbitzuetan mota guztietako taldeak edo bilerak saihestu behar dira.
- **Programatutako prestakuntza-jarduera presentzial GUZTIA eten egingo da**, guztiz saihestezina dena izan ezik. Azken hauetan 10 pertsonako gehieneko taldeetan egingo da, eta pertsonarteko distantzia 1.5-2 metrokoa izango da.
- Bilerak aurrez aurrekoak ez diren sistemen bidez egingo dira, eta ahal izanez gero telelanaren bidez.
- Ikastaro, kongresu edo konbentzioetara joateko baimen guztiak etengo dira.
- Senideek ospitaleratutako paziente bakoitzeko pertsona bati eta Larrialdi Zerbitzuari egin beharreko bisitak murriztuko dira. **Laguntzaileek ez dute sukarririk izan behar, ezta arnasketa-sintoma akuturik ere.**
- **-Pazienteak ezin izango dira gelatik irten ospitalean dauden bitartean.**

Neurri horien HELBURUA osasun arloko langileak eta ospitaleratutako gaixoak babestea da.

Koroabirusak, alderdi askotan (transmisioa, morbi-hilkortasuna), gripearen birusen oso antzeko profila du. Adin handieneko eta komorbilitatea duten pertsonak dira arrisku handiena dutenak infekzioa hartzen badute. Immunitaterik ez dutenez, litekeena da infekzioa izatea birusarekin kontaktuan badaude.

Osasunerako berezko arriskuaz gain, **osasun-profesionalek kontu handiz ibili behar dugu gure pazienteei birusa ez transmititzeko.**

Zuen laguntza behar dugu gomendio horiek eraginkorrak izan daitezen eta lanean jarraitu ahal izateko kalitatezko arreta ematen jarraitzeko.